

Haurrak Zurriolara! Zabaldu mezua

Azaroaren 30ean, larunbata, HHko ATE IREKIAK egingo ditugu. Gure proiektua ezagutarazi eta ikasleak gureganatze aldera, zuen inguruan zabalteko eskatzen dizuegu. Izan ere, ikastolako kide guztion keinu txiki batek oihartzun handia eragin dezake. Zabaldu mezua!



J.M. Barandiaran Lizeoari agurra

Gure eskaerari erantzunez, Hezkuntza Sailak GKAI (Gizarte eta Kirol Animazioaren Irakaskuntzaren goi mailako heziketa zikloa) Zurriola Ikastolan integratu du. Zurriola Ikastolaren parte zen J.M. Barandiaran Lizeoak aktibo zuen ziklo bakarraren eskaintza bertan behera utzi, eta hezkuntza zentro bezala balogabeturik geratu den arren, gure ikastolaren historiaren parte izango da betirako!



Ikastolon Elkartasun Kutxa

Elkartasun Ikastolen Batzarra ospatu da aste honetan, Euskal Herriko 114 ikastolen elkartasun adierazpide den elkargunea. Bertan, ikastolok hilerohilerok elikatzen dugun elkartasun-kutxan pilatutako dirua banatu da behar handiena duten ikastolen artean, eta aurtengoa Tuterako, Lodosako, Argantzongo, Senpereko eta Kanboko ikastolei egin zaie ekarpena. [Prentsa-ohar](#) honetan duzue informazio guztia.




Badator Euskararen Eguna Ikastolan!

Euskararen Eguna Ikastolan ospatzeko, aurre-lanketa berezi bat prestatu du Gurasoen Euskara Batzordeak: azaroaren 25ean, euskararen aldeko konpromiso-orri bat jasoko dugu etxeetan, eta ostiralera arteko epea izango dugu gurasook seme-alabekin orri hori bete zeko. Orriaren truke, abenduaren 3ko txokolatadarako txartela jasoko dute LHko ikasleek (HHn ere lanketa bera egingo dugu, baina ez da txokolatadarako txartelik banatuko). Sorotan eta Atergorrietan izango da aurten txokolatada.



Euskararen Eguna auzoan ere!

Euskara auzoan ospatzeko, "Antxuak balia. Donostiako bertsolariet buruzko saio musikatua" antolatu du Gurasoen Euskara Batzordeak. Azaroaren 28an izango da, 19:30ean, Koba Hostelen. Anima zaitzete!



Gure haurrak ere badira!

Azaroak 20an Haurren Nazioarteko Eguna izan zen. Hori dela eta, Palestinako haurrekin elkartasunez Lehen Hezkuntzako haur eta irakasle guztiek argazkia atera genuen. Haurren bizitzak defendatu!



Emakumeak zientzialari

LH6ko ikasleok EHU-ko Kimikako fakultateak antolatutako "Emakumeak zientzialari" proiektuan parte hartzen hasi gara. Aste honetan, hiru ikerlari izan ditugu gure artean: Oihane Sanz, Itsaso Calafar eta Maria Paulis. Galdera piloan egin eta gauza asko ikasi ditugu!



DBHko ipuin-kontaktak Ategon

DBH 3ko Ongizate Fisiko eta Emozionaleko ikasleok gorputz adierazpenaren bitartez kontatutako ipuinak prestatu ditugu, eta aste honetan LH 1 eta 2ko ikasleei kontatu/antzeztu dizkiegu. Zein polita den gelan lantzen duguna errealitate bihurtzea!



28. jardunaldi pedagogikoak

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak antolatutako 28. jardunaldi pedagogikoetan izan gara atzo eta gaur Zuzendaritza Taldeko kideok, ikastolen markoak zehazten duen pertsona-ereduaren inguruan adituen hitzaldiak entzuten. Hezi nahi ditugun pertsonak ditugu ardatz, eta etengabe ikasten ari gara!



Urmael-sarea auzolanean

Ederki aritu ginen aurreko igandean Uliako Lohitxibeha urmaela atontzen. Talde polita elkartu ginen, eta gure anfibioei urmael eder bat egokitu genien. Orain, aste honetako euririk lagunduta, urmaela urez bete eta anfibioak bertara gerturatzea itzarongo dugu.



Negulekuak

Azken bi urteetan Negulekuak antolatu ditugu Bera Bera elkartearekin elkarlanean, baina izen-ematea oso txikia izan denez, ezin izan ditugu aurrera eraman. Hori dela eta, aurten ez ditugu ikastolan antolatuko, baina Bera Berak antolatzen duen eskaintza zuen eskura jartzen dugu.



Zorionak musikari guztiei!

Gaur dugu Santa Zezili eguna, musikarien eguna, beraz zorionak ikastolako musikari guztiei! Asteartean ospatu genuen Groseko kaleetan zehar, eta giro ederrean aritu ginen.



OHARRAK / AGENDA:

- LH1: Ekain Berrira irteera. Azaroak 28. Egunpasa.
- LH5: Zientzia museora irteera. Azaroak 27. Egunpasa.
- DBH2: Eski-irteera. Martxoak 22-23. [Zirkularra](#) eta [izen-ematea](#).
- BATX1: Begirale ikastaroa. [Zirkularra](#) eta [izen-ematea](#).
- BATX1-2: 1. Ebaluazioko erreperazioak. Azaroak 25 - Abenduak 5.
- BATX1-2: Buletinen inguruko [oharra](#).
- BATX2: Gurasoekin orientazio-saioa. Azaroak 27. 17:00. Izen-ematea.
- Eskola Kirola: 5. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).

